


Kolegioan euskaraz: etorkizuneko erronka



BESTE HIZKUNTZA BAT IKASTEA, GAUZA BERAK IZENDATZEKO BESTE HITZ BATZUK IKASTEAZ GAINERA, GAUZAK PENTSATZEKO BESTE MOLDE BAT IKASTEA ERE BADA.

- FLORA LEWIS -

Flora Lewis (1922-2002) kazetari eta idazle
estatubatuarra zen. New York Timeserako solaskidea
izan zen European. Parisen bizi izan zen.

PIRINIO ATLANTIKOETAKO DEPARTAMENDUAK argitaratua

Jean-Biray etorbidea, 64 – 64058 Pau Cedex

Diseinu grafikoa eta ilustrazioa: Sabina Hourcade.

Argazkiak: Ariane Duplaceau Argazkilaria,
Sabina Hourcade.

Erredakzioa: Vincent Faugère, Anatole Arestegui,
Pirinio Atlantikoetako Departamendua;
Marie Delpech, Marie Pierre Cohéré, Hezkunde Nazionala;
Christian Malmose, Xalbat Itcaina, Euskararen Erakunde Publikoa.

Euskarazko itzulpena: Txomin Urriza Lurro

Inprimaketa: Martin impressions

HONAKO ERAKUNDE HAU EK SOSTENGATURIK:



Ikus bideoan
kolegioan euskara ikasteak
eman ditzakeen aukerak!



01.
**Irakaskuntza
elebidunari esker,
dena hobeki
ikasten da**

06. ORRIALDEA

04.
**Irakaskuntza
elebidunari
buruzko sinesmen
xuxenak eta
okerrak bereiztea**

20. ORRIALDEA

07.
**Kolegio
elebidun bat
zure etxetik hurbil**

32. ORRIALDEA

02.
**Hiztun oso
bilakatze
biderik
hoberena**

10. ORRIALDEA

05.
**Euskara,
ikasgelatik
kanpo ere bai**

24. ORRIALDEA

03.
**50 urte baino
gehiagoko
esperientzia
irakaskuntza
elebidunean**

16. ORRIALDEA

06.
**Ezinbesteko
partaideak**

28. ORRIALDEA

Aurkibidea



Gure biharko enbaxadore eleaniztunei

Departamenduaren xedea zera da, Ipar Euskal Herriko eta Bearnoko kolegioetako ikasleei baldintza onenak eskaintzea beren garapen pertsonal eta akademikorako. Egunerokoan familiekin, Hezkunde nazionalarekin eta elkarteekin lan eginez, Departamenduak gure gazteen loratzea sustatzen du eta etorkizunera buruzko bidean laguntzen ditu. Lurraldeko hizkuntza eta kulturei atxikia eta horietaz harro, Departamenduak gogotik sustatzen du lekuko bi hizkuntzen transmisioa eta erabilera. Halaber, euskara eta euskal kultura gure erroen eta historiaren parte dira, eta alteritaterako bidea irekitzen dute. Herri-kulturaren oinarria diren heinean, belaunaldien arteko harremanak indartzen dituzte eta gizarte-kohesioa sustatzen dute, gure mugetatik haratago ere. Euskararen etorkizuna esku onetan dela ikusteaz loriatzen naiz. Biharko herritarrengan fida gaitezen, eta susta ditzagun, etorkizuneko Pirinio Atlantikoetako enbaxadore eleaniztunak bilaka daitezen.

Jean-Jacques LASSERRE

Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluko lehendakaria



Haurrek ikas ezazue...

2004an sortu zen EEP. Gaur egun, Estatuak, Eskualdeak, Departamenduak eta Euskal Elkargoak osatzen eta diruztatzen dute. Euskararen aldeko hizkuntza-politika definitu eta gauzatzen du. Politika horren helburua da ahalik eta pertsona gehien "hiztun oso" bilakatzea, gazteenak xedetzat hartuz batez ere. Gaur egun euskararen transmisioa ez duenez familiak bakarrik segurtatzen, irakaskuntza elebiduna guztiz estrategikoa da, belaunaldi gazteei euskara transmititzeko lehen eragilea baita orain. Kasik ikasleen erdiak izena ematen du euskara-frantsesa irakaskuntza elebidunean, ama eskolan. Haur horiek guztiak osoki baliatzeko beren gurasoek eta gizarteak eskaintzen dieten elebitasunaren opariaz, garrantzitsua da, gero ere, kolegioan eta lizeoan, ibilbide elebidunean ikasten segi dezaten. Hau da liburuxka honen mezua, eta hau da guraso guztiei EEPko lehendakari gisa ematen diedan aholkua.

Maïder BEHOTEGUY

Euskararen Erakunde Publikoko lehendakaria



Engaiamendu sendoa

Badu urte anitz Hezkunde Nazionalak eskualdeetako hizkuntzen irakaskuntzaren aldeko engaiamendu sendoa hartu duela. Hala, Ipar Euskal Herrian, eskola publikoa duten udalerrien % 81ek badute bederen eskola elebidun bat, eta irakaskuntza-sare guzien artean ikasleen % 43k ikasten dute euskaraz. Euskararen ikaskuntza garatzen segitzeko borondatearen ondorioz, urtero, klase elebidun eta murgiltze-sail berriak irekitzen dira. Politika hori gauzatzeko, eskualdeko hizkuntzen irakaskuntzari dagokion urte aurrekontua 40 milioi eurokoa da gaur egun. Beraz lehen mailatik euskal irakaskuntza eskaintzen duten eskolak aise atzeman ditzakete familiek beren inguruan, eta halaber kolegioan eta lizeoan segitzeko aukera ere. Hortaz, goraki erran daiteke Hezkunde Nazionalaren euskarazko irakaskuntzaren aldeko engaiamendua zinez sendoa eta iraunkorra dela.

François-Xavier PESTEL

Hezkunde Nazionalako zerbitzuen zuzendari akademikoa



01.

Irakaskuntza elebidunari esker, dena hobeki ikasten da

Eskualdeko hizkuntza bizi bat ikasteak kolegioko ikasleen pentsamendua egituratzen laguntzen du. Ikaste horrek haurrentzat ateratzen laguntzen du eta, aldi berean, oinarritzko irakaskuntzak hobeki barneratzeko gaitasunak indartzen ditu. Gainera, kolegioan irakaskuntza elebiduna jasotzea ezinbestekoa da geroago euskararen hiztun aktibo bilakatzeko.

Hautzarotik ateratzea errazagoa da

Kolegioa aldaketa handien garaia da. Ikasleak pixkanaka ateratzen dira hautzarotik. Orduan, beren pentsamendua egituratzen eta ikuspegi hipotetiko-deduktiboa menperatzen ikasi behar dute. Gimnastika intelektual hori bi hizkuntzatan garatzea onuragarria zaie.

Trantsizio urte hauetan gurasoen laguntza premiatsua bada ere, kolegioko ikasleek gainerateko nerabeekin duten harremana ere erabakigarria da. Ikasle gazteak beren nortasunaren bila dabilta eta beren burua ezagutarazi nahi dute. Bilaketa horren parte dira talde bateko kide izatea, jantzi-kode berriak bereganatzea eta hitz egiteko manera berri bat izatea; bigarren hizkuntza baten ikaskuntzak azken bilaketa hori aberasten du.

Beste hizkuntza batzuk hobeki ikastea

Kolegiora sartzean, irakaskuntza elebiduna ama eskolatik jaso duten ikasleek euskara zortzi urtez ikasi dute. Beraz, kolegioan, euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzeko eta sakontzeko ahalko dituzte. Irakaskuntza horrek lagunduko ditu kolegioan ikasi beharko dituzten atzerriko hizkuntza bizi batzuk ikasten.

Era berean, eskualdeko hizkuntza bizi bat ikasteak frantsesa hobeki menperatzen laguntzen du eta, oro har, oinarritzko irakaskuntza guztiak hobeki bereganatzen laguntzen du.

Hiztun bihurtzeko funtsezko urratsa

Frantsesa-euskara eskola-ibilbide batean, funtsezkoa da kolegioan jarraiketasunaren hautua egitea. Frantsesarekin gertatzen den bezala, kolegioaren bukaeran, edo are lizeoaren bukaeran, haurrak zinez badaki euskaraz mintzatzen eta idazten. Hizkuntza menperatzeko, hein horretara heldu behar da, ikasitako guztia galtzeko arriskurik izan ez dadin.

Sail elebiduneko ikasleek, kolegioan, astean 3 orduz ikasten dute euskara, euskaraz irakasten diren beste irakasgaieiz gain. Ordu hauek ikasle elebakarrek jasotzen ez duten ikaskuntza-gehigarria dira. Lehen mailako ikaskuntza hobeki egituratzeko eta sakontzeko ahala ematen dute. Haurrek, orduan, beren gaitasunak gara ditzakete euskaraz, eta gero zinezko ezagutza gisa baloratu, pertsona elebidunak izateak dakartzan abantaila guztiekin.

ELEBITASUN
GOIZTIARRAK
SUSTATZEN DITU
HAURRAREN GOGO
PIZTEA, GARAPEN
INTELEKTUALA ETA
LINGUISTIKOA.





02.

Hiztun oso bilakatzeko biderik hoberena

Lehen mailan euskara ikasi duten haurrek, kolegioan irakaskuntza elebidunean ikasten segitzean, xantza guztiak beren alde ezartzen dituzte, geroago, euskararen hiztun aktibo bilakatzeko. Gainera, bide horrek bermatzen du lizeoko eta unibertsitateko goragoko mailetara heltzea. Azkenik, euskalduna izatea lan-merkaturako gaitasun profesional gisa kontsideratua izan daiteke.

Seigarrenetik brebetara... eta gero ere

Sakonduta eta proiektatzea

Kolegioetako sail elebidunak zuzentzen zaizkie oroz gaineratik lehen mailatik euskara ikasten hasi diren ikasleei. Seigarrenetik, hizkuntzaren ikasketa indartzen da eta euskal kulturaren ezagutza sakontzen da. Sail elebidunen helburua da ikasleak eskola-ibilbidean beren hizkuntza maila balioesten ahalikoa duten hiztun oso bilakatzea.

Brebetarako puntu gehigarriak

Irakaskuntza elebiduneko ikasleek brebetaren diploma nazionalaren azterketak euskaraz idazteko aukera dute. Ikaste-zikloan lortutako hizkuntza-mailaren arabera puntu gehigarriak lortzeko aukera ere badute. Eta beren diplomari "euskara, eskualde-hizkuntza" aipamena agertzea eska dezakete.



Euskarak kolegioaren ondotik ere balio du

Euskararen irakaskuntzak segitzen du kolegioaren ondotik ere, bai sail orokorrean, bai teknologikoan, bai profesionalean, ikastetxeen arabera. Irakaskuntza hori baloriza daiteke batxilergoaren ondoko orientaziorako. Bortoleko eta Paueko unibertsitateek Baionako campusean proposatzen duten euskal ikasketen ibilbidearen ateak irekitzen ditu ere. Azkenik, aipa daiteke B2 mailako ziurtagiria behar dela Euskal Herriko Unibertsitatean izena emateko, Hego Euskal Herrian.

Enplegurako abantaila bat

17 urtetik goiti, hiztunek beren hizkuntza-mailaren ziurtagiria eskura dezakete, Euskararen Erakunde Publikoaren bidez (EEP). B1, B2 edo C1 mailaren aitorpen hori oinarritzen da Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan finkatutako irizpideetan. Horrela, ziurtagiri horien jabeek erabil ditzakete lan merkatutako argumentu gisa. Bereziki, osasunaren, lehen haurtzaroren, pertsonei emandako laguntzaren, merkataritzaren, ostalaritzaren, kulturaren edo kirolaren sektoreetan –zerrenda hau ez da osoa– euskaraz hitz egiten duten langileek eskaera dago.

Kolegioan euskara ikasteko bi bide nagusi

Ordu-parekotasuna duten ikasketa sailak


Kolegioetako sail elebidunetan, ikasleek astean bederen hiru orduz ikasten dute euskara. Gainerateko ikasgaietarako, kolegioek joera dute ordu-parekotasuna plantan ezartzeko; orduan, ikasgaien erdiak frantsesez ematen dira eta beste erdiak euskaraz. Euskaraz eman ikasgaiak kolegioen arabera aldatzen dira.

Murgiltze eredua

Seaska federazioko ikastetxeek eta kolegio pribatukoek ere irakaskuntza elebiduna eskaintzen dute, baina murgiltze ereduan. Kolegio horietan, ikasleek astean lau orduz ikasten dute euskara. Beste irakasgai guztiak euskaraz irakasten dira ere, hizkuntza-ikasgaiak izan ezik.

Oinarrizko ezagutzetarako hautuzko ikasgaia

Lehen mailan euskara-frantsesa irakaskuntza elebidunik eskuratu ez duten haurrek euskara aukera dezakete hautuzko ikasgai gisa, seigarrenetik gora, kolegio batzuetan. Astean bi orduko klase horien helburua ez da hiztun osoak sortzea, baizik eta haurrei euskarazko oinarrizko ezagutzak ematea.



Europako Erreferentzia Esparruan onartutako hizkuntza-mailak

Gaur egun, atzerriko eta eskualdeko hizkuntza bizien jabetasun-maila Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera ebaluatzen da. Honek hiru jabetasun-maila handi finkatzen ditu: A, B eta C, eta maila horietako bakoitza bi zatitan banatua da. Maila horiek hizkuntza-jardueri aplikatzen zaizkie; beste gisan errateko, hizkuntza bat ahoz nahiz idatziz ulertzeko eta adierazteko gaitasunak ebaluatzeko aukera ematen dute. Ikastalde elebidunetan, espero da ikasleek bederen A2 maila kausitzea hizkuntza-jarduera guztietan, seigarrenaren bukaeran. Era berean, ikasleek bederen B1 maila kausitu beharko dute kolegioaren bukaeran, eta B2 maila lizeoaren bukaeran.

03.



50 urte baino gehiagoko esperientzia irakaskuntza elebidunean

Gaur egun, 15.000 ikaslek baino gehiagok ikasten dute euskara Pirinio Atlantikoetako eskola, kolegio eta lizeoetan. Irakaskuntza hori 750 irakasle eta profesional baino gehiagok ematen dute, 200 bat ikastetxetan, sail guzietan. Horrek erakusten du zer bide luzea egin den 1966an ama eskola batean murgiltze-klaseko lehen esperimentazioa abiatu zenetik.

1966**Ama eskola pribatu elebiduna**

Murgiltze eredia erabili zuen lehen ama eskolako klasea ireki zen, Baionan, eskola pribatu katoliko batean.

1969**Lehen Ikastola**

Ikastolen elkarte-mugimenduak bere lehen murgiltze-eskola estreinatu zuen, Arrangoitzen.

1980**Murgiltze eredia kolegioan**

Seaskak, ikastolen federazioak, murgiltze eredia erabili zuen lehen kolegioa estreinatu zuen, Donibane Lohizunen. Gaur egun, 1.000 ikasle baino gehiago daude Seaskaren bost kolegioetan.

1983**Lehen eskola publiko elebiduna**

Ordu-parekotasuneko lehen eskola publiko elebidunak atek ireki zituen Saran, halako irakaskuntza baimentzen zuen 1982ko Savary zirkularren ondorioz. Gaur egun, 11.000 ikasle elebidunen erdiak baino gehiago daude eskolatuak eskola publikoetan.

1985**Murgiltze eredia lizeo pribatuan**

Murgiltze-metodoa erabili zuen lehen lizeo pribatuak atek ireki zituen, Kanbon. Gero, hainbat herritan kokatu zen, eta, azkenean, Baionan finkatu zen. Bernat Etxepare lizeoa du izena, eta gaur egun 450 ikasle baino gehiago biltzen ditu, sail orokor, teknologiko eta profesionaletan.

1988**Kolegio elebiduna**

Lehen ikasle saldo elebiduna irakaskuntza publikoko seigarrenera heldu zen, Donibane Lohizuneko Maurice Ravel kolegiara. Gaur egun, 1.300 ikasle baino gehiagok ikasten dute euskara, sail elebidunean, lurraldeak dituen 18 kolegioetatik 15 kolegiotan.

1989**Hezkunde Nazionalarekin kontratupean**

Seaska ikastolen federazioak partzuergo-kontratu bat sinatu zuen Hezkunde Nazionalarekin.

1993**Kolegio pribatu elebiduna**

Sail elebidun bat ireki zen, Hazparnen, Ursuia kolegio pribatu katolikoan. Gaur egun, irakaskuntza pribatuko 18 kolegioetatik 12k proposatzen dute hezkuntza-eskaintza hori.

1996**Lizeo elebiduna**

Maurice Ravel lizeo publikoak bigarren elebiduneko lehen ikasleak hartu zituen. Gaur egun, sei lizeok eskaintzen dute batxilergo arteko irakaskuntza elebiduna.

1998**Lizeo pribatu elebiduna**

Uztaritzeko San Josep lizeoa batxilergo arteko irakaskuntza elebiduna eskaintzen lehena izan zen, irakaskuntza pribatu katolikoan.

2004**Euskararen Erakunde Publikoa**

EEP sortu zen. Hezkunde Nazionalarekin eta lurralde elkargoekin hitzarturik, bere helburu nagusietarik bat da euskararen irakaskuntza zabaltzea eta indartzea.

GAUR EGUN**Irakaskuntza eskaintza hedatzera buruz**

Ipar Euskal Herriko eskola, kolegio eta lizeo orokorren % 75 inguruk irakaskuntza elebiduna eskaintzen dute. Eta ikastetxe teknologiko eta profesionalen % 25ek. Gainera, haurren erdiak baino gehiagok euskaraz hasten dute eskolatze-aldia.



04.

Irakaskuntza elebidunari buruzko sinesmen xuxenak eta okerrak bereiztea

Ikasgela elebiduneko lan-zama handiegia ote da?
Euskaldunak ez diren gurasoek beren haurrak lagundu ditzakete?
Zein alorretan erabiltzen da euskara? Hona hemen euskararen
irakaskuntzari buruzko ohiko galderen erantzunak.

Lan-zama handiegia da.

OKER

Kolegiora joateak haurren lan-zama handitzen duela egia bada ere, lan-zama hori ez da handiagoa irakaskuntza elebidunetako ikasleentzat. Izan ere, irakasleek, seigarrenean, eskatutako lan-zama egokitzen dute. Oroitaraz dezagun ikasmaila hori hirugarren zikloaren parte dela, lehen mailako laugarren eta bosgarren urteekin batean.

Gurasoek, euskaldunak izan gabe ere, haien haurra lagun dezakete.

XUXEN

Haurrari eskolaz kanpoko jarduerak, musika, liburuak, ikuskizunak edo filmak euskaraz eskaintzean, hizkuntzarekiko atxikimendua erakusten diote. Ekimen horiek haren motibazioa pizten dute. Etxeko lanak egiteko, haurrak manua itzuli edo azal diezaieke; orduan, haiek lagun dezakete, eta haren autonomia susta. Irakasleek eta beste gurasoek ere lagun dezakete.

Haur elebiduna, biharko pertsona eleaniztuna izan daiteke.

XUXEN

Hizkuntza- eta neurologia-ikerketek hori frogatu dute. Haurtzarotik bi hizkuntza jakiteak errazagoa eta ia naturalagoa egiten du hirugarren hizkuntza bat edo gehiago ikastea. Horrek are egiazkoagoa dirudi frantsesa-euskara elebitasunari dagokionez. Euskara frantsesaren oso bestelako hizkuntza denez, haren ikaskuntzak are gehiago indartzen du beste hizkuntza batzuk ikasteko beharrezkoa den buru-gimnastika.

Zaila da eskolatik kanpo euskaraz mintzatzea.

OKER

Euskara hizkuntza bizia da eta etengabe garatzen ari da. Gizartea euskara berreskuratzen ari da eta hurrengo urteetan hizkuntza honek gero eta presentzia handiagoa izan beharko luke. Aisialdietan, hedabideetan, ikuskizun bizietan, kirolean eta abarretan erabiltzen da. Gaur egun, euskal liburuen, komikien, kantuen, filmen eta marrazki bizidunen ekoizpen aberatsa da.

Euskara baliagarri izan daiteke lana atzemateko.

XUXEN

Gaur egun, euskaraz hitz egiten duten profesionalak bilatzen dira jarduera-sektore guztietan: osasuna, pertsonen emandako zerbitzuak, lehen haurtzarora, kultura, hezkuntza eta formakuntza, informazioa eta komunikazioa, arte eta ikuskizunak, ostalaritza eta sukaldaritza, merkataritza, turismoa, mugaz gaindiko harremanak... Gainerateko hizkuntzak bezala, euskara gaitasun gehigarria da, eta beraz abantaila izan daiteke lana aurkitzeko.

Euskara galbidean den dialekto zahar bat da.

OKER

Euskara hizkuntza aitzinindoeuropar bat da, Europako zaharrena. Badu bederen 2.000 urte idazten dela. Gaur egun, bateratua eta modernizatua da, eta XXI. mendeko erabileretara egokitzen da. Eusko Jaurlearitzak EEPkin egindako zazpigarren inkesta soziolinguistikoaren arabera (2023an argitaratua), 800.000 euskaldun baino gehiago daude Euskal Herrian, haietarik 51.500 lpar Euskal Herrian. Gainera, mundu osoan banatutako 1.185.500 euskaldunekin, euskara munduko hizkuntzen* 360. postuan dago, Munduko Atlas Soziologikoaren arabera. Gainera, Wikipedia lineako entziklopedian gehien erabiltzen den 34. hizkuntza da, 400.000 artikulurekin.

* Munduan 8.000 hizkuntza inguru daudela estimatzen da.

Zure haurrak ez du behar den euskara mailarik kolegioan segitzeko.

OKER

Irakaskuntza maila guztietan, hizkuntza egokitzen da haurren maila eta gaitasunetara. Ikasmaila bakoitzean, irakasleek gogoetatzen dute haurrak ibilbidea segi dezakeen edo ez. Profesional gisa, oinarritzen dira ebaluazioetan eta haurraren ezagutzan, baita espero den hizkuntza mailan ere.



05.

Euskara, ikasgelatik kanpo ere bai

Gaur egun, film, liburu, komiki, egunkari eta webgune anitz argitaratzen dira euskaraz. Euskaraz hitz egiten da kirol klub eta aisialdiko elkarte batzuetan ere. Azkenik, diaspora handi batek euskara mundu osoan zabaltzen du.

Euskaraz irakurri, begiratu eta entzutea

Euskara irakurri, ikusi eta entzun nahi duzu? Ez kexa! Egunkariak, irratiak, telebista, zinemako filmak, liburuak, komikiak, webguneak eta podcastak badaude euskaraz, denentzat, gazte eta helduentzat. Euskal antzerki, dantza eta musika obrak erregularki programatzen dira, eta euskaldunek beste kultura-gertakari anitzetan parte hartzen dute ere. Argibide gehiago nahi baduzu, Interneten bilatzeaz gain, sar zaitez harremanetan euskal kultura-saltegi, -elkarte eta -erakundeekin.



Kirolak eta aisialdia euskaraz

Euskara ez da soilik dantza, kantu tradizional eta pilotaren hizkuntza. Kultura-aretoetan eta kirol-zelaietan ere hitz egiten da, zirkuetan, borroka-kiroletan edo itsasoko uhinetan. Kirol eta aisialdi klub euskaldunak ezagutzeko, sar zaitez harremanetan Herriko Etxeekin, ikasleen gurasoen elkarteekin edo Euskararen Erakunde Publikoarekin.

Munduan zehar bidaiatzea

Euskal diasporak zuzeneko euskal jatorria duten 4,5 milioi pertsona baino gehiago ditu atzerrian. Gainera, planeta guztian 15 milioi pertsonak euskal deitura bat dute. Horri gehitu behar zaio 45.000 pertsonak elkarteetan lan egiten dutela, bereziki mundu osoan barreiatuak diren 200 Euskal Etxetan. Bidaiatzean, beraz, euskaldunek harrera-sare zabala aurkituko dute, eta sare horretan jende anitzekin hitz egiten ahalko dute.





06.

Ezinbesteko partaideak

Material pedagogikoaren ekoizleak, formakuntza antolatzaileak, familia eta irakasleen laguntzaileak eta abar izan daitezke elkarte- eta erakunde-eragileak. Euskararen transmisioaren arrakastaren parte dira, eskolaldi osoan.



HEZKUNDE NAZIONALA Lotura eta aholkularitza

Ama eskolatik lizeora, Hezkunde Nazionalak aktiboki parte hartzen du frantsesa-euskara irakaskuntza elebiduna plantan ezartzen eta garatzen. Lehen eta bigarren mailako ikuskariek, akademia errektorearen eta akademia ikuskariaren aholkulari teknikoek eta Hezkunde Nazionalako zerbitzuen zuzendari akademikoak hainbat misio dituzte; besteak beste, honako hauek: irakaskuntzako politika nazionalen eta hizkuntza-politiken laguntza, erakundeetako eta elkarteetako partaideekin harremanetan; euskarazko baliabide pedagogikoak gainbegiratzea eta baliozkotzea; eta, frantsesa-euskara ibilbide linguistikoa elebidunen jarraipenaren parte gisa, kolegioetan informazio-bilkurak antolatzea, horietan partaideek parte hartuz.



EEP Politika publiko hitzartua

EEP interes publikoko elkargo bat da, 2004an sortua. Estatuak, Eskualdea, Departamendua eta Euskal Hirigune Elkargoa biltzen ditu. Bere zeregina da euskararen aldeko politika publiko eta hitzartua plantan ezartzea. Duen lan ardatz nagusietarik bat da hezkuntza-eskaintza zabaltzea eta bere tresnak indartzea, euskararen hiztun osoak formatzeko. EEP bermatzen da bereziki hezkuntza-sistemako eragileen, hizkuntza-eragileen –hala nola hedabideen eta formakuntza- eta aisialdi-elkarteen– eta soziolinguistikako eta unibertsitate-ikerketako adituengan.



DEPARTAMENDUA Kolegioko ikasleen eguneroko bizian

Departamenduak diruztatzen du Pirinio Atlantikoetako 49 kolegio publikoen eraikuntza eta berrikuntza. Altxariak eta ekipamendu digitalak erosten ditu. Garbiketa-lanez, mantentze-lanez eta jantegiaz arduratzen diren langile teknikoak enplegatzen ditu. Gainera, kontratupeko 39 kolegio pribaturi dirulaguntzak ematen dizkie. Zerbitzu publikoko betebeharez gain, Departamenduak kolegioetako ikasle guzietan hezkuntza-ekintzak eskaintzen dizkie, haien ikastalde-proiektuen barnean. Modulu horiek sarbideak izan daitezke herritar engaiamenduan, artean eta kulturen, osasunean eta ingurumenean, lurraldearen ezagutzan. Euskarazko ekintzak ere proposatzen dira.



IKAS Euskarri pedagogikoak

Ikas euskarazko euskarri pedagogikoak sortzen eta zabaltzen dituen elkarteak da, irakasgai guziaz irakasteko: euskara, literatura, matematika, historia eta geografia, zientziak, teknologia, etab. Liburu, ikasliburu, CD, DVD, aldizkari eta fitxategi digital hauek maila guzietako ikasleentzat eginak dira. Ahal den neurrian, euskarri pedagogiko horiek saiatzeko dira tokiko ondarea baloratzen. Elkarteak obra klasikoak itzultzen eta euskal obra garaikideak ere argitaratzen ditu. Hezkunde Nazionalarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin hitzarmenak sinatu ditu.



IKAS-BI & BIGA BAI Irakaskuntza publikorako ikasleen gurasoak

Ikas-bi irakaskuntza publikoko frantsesa-euskara ikasle elebidunen gurasoen lehen elkarteak izan zen. 1986an sortu zen, eta eskola-kontseiluetan eta bigarren mailako administrazio-kontseiluetan presente da. Bere helburu nagusiak dira irakasleekiko harremanak indartzea, eskolako bizian parte hartzea eta irakaskuntza elebidunaren kalitatea bermatzea. Ikas-bik sortu ditu besteak beste *Emazu Eskua* mugaz gaindiko eskolako trukadak, *Ikasbiklik* etxeko lanak egiten laguntzeko aplikazioa, eta *Gure azieta, gure Euskal Herria* elikadura eta laborantzari buruzko jokoa.

Biga Bai irakaskuntza publikoko frantsesa-euskara ikasle elebidunen gurasoen elkarteak da. 2003an sortu zen. Ama eskolatik lizeora, gurasoen, eskolaren, Hezkunde Nazionalaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko bitartekari-lana egiten du. Kolegioen eta lizeoen administrazio-kontseiluetan hautatutako bere ordezkariak irakaskuntza elebidunaren kalitatea bermatzen dute. Biga Baik, gainera, ikasleei eta haien familiei zuzendutako euskarazko kultur ekintzak sustengatu eta proposatzen ditu, ikasketen bukaeran ikasleak hiztun osoak izan daitezzen.




SEASKA Murgiltze-eskolen federazioa

Ikastolen federazioa da Seaska, euskarazko murgiltze eredua erabiltzen duten elkarteezko federazioa. Seaskako diziplina anitzeko langile taldeek laguntza logistikoa eta pedagogikoa ematen diete ikastetxe horiei. Seaskako kolegioek proposatzen dituzte, besteak beste, estudio zainduak, sustengu klaseak eta integrazio ateraldiak eskola sartzeko guztietan. Tutoretza printzipioan oinarriturik, ikasleen segimendu berezia egiten dute: irakasle bat arduratzen da talde pedagogikoaren, ikaslearen eta familiaren arteko harreman etengabea zaintzeaz. Ahalmen urriko haurren integrazioa bermatzen dute ere, Ullis baliabideen bitartez.



EUSKAL HAZIAK Irakaskuntza katolikorako elkartea

Euskal Haziak irakaskuntza katolikoko ikastetxe elebidunen gurasoen, irakasleen eta zuzendarien elkarteak da. 1100 familia baino gehiago dira Euskal Haziaren kide. Ipar Euskal Herrian irakaskuntza elebiduna eskaintzen duten 50 ikastetxe daude, eta haietan ikasten dute 3.500 ikasle baino gehiagok. 1983an sortu zen Euskal Haziak. Irakaskuntza katolikoaren Diozesa-Zuzendaritzak garatutako ordu-parekotasuneko edo murgiltze ereduko sail elebidunak sostengatzen ditu. Gainera, euskarazko kultura-jarduerak eta -proiektuak eskaintzen dizkie ikasleei: antzerkia, ikuskizunak, ipuin-idazketa edo egonaldiak Uda Leku herri-hezkuntzako elkartearekin.



07.

Kolegio elebidun bat zure etxetik hurbil

Gaur egun, orotara 32 kolegiok irakasten dute euskara Departamenduan. Kolegio elebidun horietako hamabost publikoak dira, beste hamabi kolegio pribatu katolikoak. Seaska federazioko murgiltze-metodoko bost kolegiok osatzen dute eskaintza hau. Mapa geografikoa eta harremanetarako datu guztiak hurrengo orrialdeetan.

☀ Collèges publics (bilingue et/ou option) / Kolegio publikoak (elebiduna edota hautuzkoa)

ANGLÉT / ANGELU

Collège public Endarra / Endarra kolegio publikoa
ce.0640003f@ac-bordeaux.fr - 05 59 63 07 04

BAYONNE / BAIONA

Collège public Marracq / Marracq kolegio publikoa
ce.0640212h@ac-bordeaux.fr - 05 59 63 29 65

Collège public Albert-Camus / Albert-Camus kolegio publikoa
ce.0640609p@ac-bordeaux.fr - 05 59 55 01 90

BIARRITZ / MIARRITZE

Collège public Villa Fal / Villa Fal kolegio publikoa
ce.0640078m@ac-bordeaux.fr - 05 59 41 02 62

BIDACHE / BIDAXUNE

Collège public du pays de Bidache
Bidaxuneko kolegio publikoa
ce.0640019y@ac-bordeaux.fr - 05 59 56 04 89

**Ce collège dispense uniquement l'option basque. /
Kolegio honek euskara irakasten du hautuzko ikasgai
gisa bakarrik.**

CAMBO-LES-BAINS / KANBO

Collège public Errobi / Errobi kolegio publikoa
ce.0641392r@ac-bordeaux.fr - 05 59 29 73 56

HASPARREN / HAZPARNE

Collège public Elhuyar / Elhuyar kolegio publikoa
ce.0641393s@ac-bordeaux.fr - 05 59 70 29 80

HENDAYE / HENDAIA

Collège public Irandatz / Irandatz kolegio publikoa
ce.0640228a@ac-bordeaux.fr - 05 59 20 79 52

MAULÉON-LICHARRE / MAULE-LEXTARRE

Collège public Argia / Argia kolegio publikoa
ce.0640039v@ac-bordeaux.fr - 05 59 28 08 17

SAINT-ÉTIENNE-DE-BAÏGORRY / BAIGORRI

Collège public Jean-Pujo / Jean-Pujo kolegio publikoa
ce.0640064x@ac-bordeaux.fr - 05 59 37 40 07

SAINT-JEAN-DE-LUZ / DONIBANE LOHIZUNE

Collège public Chantaco / Xantako kolegio publikoa
ce.0640229b@ac-bordeaux.fr - 05 59 26 26 08

Collège public Maurice-Ravel / Maurice-Ravel kolegio publikoa
ce.0640065y@ac-bordeaux.fr - 05 59 08 22 00

SAINT-JEAN-PIED-DE-PORT / DONIBANE GARAZI

Collège public La Citadelle / Zitadelako kolegio publikoa
gest.0640069c@ac-bordeaux.fr - 05 59 37 03 69

SAINT-PALAIS / DONAPALEU

Collège public d'Amikuze / Amikuzeko kolegio publikoa
ce.0641232s@ac-bordeaux.fr - 05 59 65 71 39

SAINT-PIERRE-D'IRUBE / HIRIBURU

Collège public Aturri / Aturri kolegio publikoa
ce.0642038t@ac-bordeaux.fr - 05 59 45 10 60

TARDETS-SORHOLUS / ATHARRATZE-SORHOLÛZE

Collège public Pierre-Jauregui / Pierre-Jauregui kolegio publikoa
ce.0640074h@ac-bordeaux.fr - 05 59 28 55 72

■ Collèges associatifs Seaska (bilingue immersif) Seaskako kolegioak (murgiltze-metodoa)

BAYONNE / BAIONA

Collège privé Estitxu-Robles / Estitxu-Robles kolegio pribatua
idazkaritza@baionakolegioa.eus - 05 59 58 70 00

CAMBO-LES-BAINS / KANBO

Collège privé Xalbador / Xalbador kolegio pribatua
xalbador.kolegioa@wanadoo.fr - 05 59 29 87 76

CIBOURE / ZIBURU


Collège privé Piarres-Larzabal / Piarres Larzabal kolegio pribatua
idazkaritza@plk.eus - 05 59 51 87 20

LARCEVEAU-ARROS-CIBITS / LARZABALE

Collège privé Manex-Erdozaintzi-Etxart
Manex Erdozaintzi Etxart kolegio pribatua
meek@orange.fr - 05 59 37 88 18

SAINT-PÉE-SUR-NIVELLE / SENPERE

Collège privé Kattalin Elizalde / Kattalin Elizalde kolegio pribatua
idazkaritza@kei.eus - 05 59 43 21 11



TYPE D'ÉTABLISSEMENT ET OFFRE D'ENSEIGNEMENT

EGITURA ETA IRAKASKUNTZA MOTA

● Collège public dispensant des cours de et en basque
(bilingue et option) (16)
Kolegio publikoak (elebiduna edota hautuzkoa) (16)

▲ Collège privé catholique dispensant des cours
de et en basque (bilingue et option) (12)
Kolegio pribatuak (elebiduna edota hautuzkoa) (12)

■ Collège associatif Seaska dispensant des cours
de et en langue basque (bilingue immersif) (5)
Seaskako kolegioak (murgiltze-metodoa) (5)

▲ Collèges privés catholiques (bilingue et/ou option) Kolegio pribatu katolikoak (elebiduna edota hautuzkoa)

ANGLÉT / ANGELU

Collège privé Stella Maris / Stella Maris kolegio pribatua
secretariat@stellamarisanglet.fr - 05 59 63 88 96

BAYONNE / BAIONA

Collège privé Largenté / Largenté kolegio pribatua
contact.largente@numericable.fr - 05 59 63 29 29

CAMBO-LES-BAINS / KANBO

Collège privé Saint-Michel-Garicoitz
San Mikel Garikoitz kolegio pribatua
clg-st-michel.cambo@wanadoo.fr - 05 59 48 89 00

HASPARREN / HAZPARNE

Collège privé Ursuya / Ursuia kolegio pribatua
college.ursuya@wanadoo.fr - 05 59 29 62 89

HENDAYE / HENDAIA

Collège privé Saint-Vincent
San Bixintxo kolegio pribatua
secretariat@stvincent.eus - 05 59 48 89 00

SAINT-ÉTIENNE-DE-BAÏGORRY / BAIGORRI

Collège privé Donostei / Donostei kolegio pribatua
secretariat@donostei.fr - 05 59 37 44 32

SAINT-JEAN-DE-LUZ / DONIBANE LOHIZUNE

Collège privé Sainte-Marie
Dona Maria kolegio pribatua
secretariat@clgsaintemarie.fr - 05 59 26 20 35

SAINT-JEAN-PIED-DE-PORT / DONIBANE GARAZI

Collège privé Jean-de-Mayorga
Jean de Mayorga kolegio pribatua
secretariat.mayorga@wanadoo.fr - 05 59 37 03 35

SAINT-PALAIS / DONAPALEU

Collège privé Etchecopar / Etxekopar kolegio pribatua
college.etchecopar@wanadoo.fr - 05 59 65 71 99

SAINT-PÉE-SUR-NIVELLE / SENPERE

Collège privé Arretxea / Arretxea kolegio pribatua
clg.arretxea.st.pee@wanadoo.fr - 05 59 54 13 30

MAULÉON-LICHARRE / MAULE-LEXTARRE

Collège privé Saint-François / San Franses kolegio pribatua
saint-francois@orange.fr - 05 59 28 19 10

USTARITZ / UZTARITZE

Collège privé Saint-François-Xavier
San Franses Xabier kolegio pribatua
direction.sfx@wanadoo.fr - 05 59 70 39 58